

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

**CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES**

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Lizarrako Karlismoaren Museoak doako bisita gidatuak eskainiko ditu larunbat honetan

16:30ean gaztelaniaz egingo da bisita eta 17:30ean euskaraz


Jueves, 11 de agosto de 2011

Lizarrako Karlismoaren Museoak doako bi bisita gidatu eskainiko ditu datorren larunbatean, abuztuaren 13an. Haietako lehenengoa 16:30ean izango da, gaztelaniaz, eta bigarrena, 17:30ean, euskaraz.

Horrez gain, uztailean, abuztuan eta irailean, tarifa osoko edo murriztuko sarrera bat erosiz gero sarrera bat oparituko da Iruñean dagoen Nafarroako Museoa bisitatzeko. Horri erantzuteko, Nafarroako Museoak bere sarrerarekin batera beste sarrera bat oparituko du Karlismoaren Museorako.

Urte honetan zehar, Karlismoaren Museoak doako bisita gidatuak eskaini ditu hilabete guztietan, oro har, hil bakoitzaren lehen larunbatean, eta zenbait jai direla eta. Egutegi osoa web orrian kontsulta daiteke: www.museodelcarlismo.navarra.es

Karlismoaren Museoa Gobernadorearen Jauregia gisa ezaguna den XVII. mendeko eraikin batean kokatuta dago, eta funtsezko helburu moduan hauek ditu: ondarea berreskuratzea, ikertzea eta mugimendu politiko hori hedatzea. Publikoarentzat oro har nahiz espezializatuarentzat da, eta dokumentazio zentroa ere badu. Erakusketa iraunkorren karlismoaren historia ikus daiteke, hasi zenetik 1939. urtera arte, zortzi arlotan; haietatik, zazpi, kronologikoak.



Lizarrako Karlismoaren Museoaren irudia.